



EPE 2017

TXAPELA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN!

2017ko urtarrila

Hezkuntza Sailak oposizioetarako egingo duen deialdiaren aurrean, **steilas**-etik zera adierazi nahi dugu:

- Oposizio deialdiez gain, klaustroen eta bitarteko irakasleen egonkortasuna bermatzeko, beste aukera batzuk badaude. Europatik etorri berri den sententziaren inguruan ere ezer gutxi egiteko asmoa du gobernuak. Are gehiago, Madrileko gobernuak zer egin zain dago jaurlaritza.
- Egin behar den ahalegina kontuan izanda plaza kopuru eskasa da. %35eko behin behin-behinekotasuna duen sektoreari ez zaio holako petatxuekin konponbiderik ematen. 6000 lanpostuko EPE bat behar da!!! Egoera hau salatu eta epelarien ahaleginei eta Administrazioaren gastuei etekinak ateratzeko, plaza gehiago ateratzea ezinbestekoa dela aldarrikatzen dugu.
- Jendea zerrendetan sartzeko, hauek une oro irekiak mantendu beharrean, EPE aren karamelua dabilkie.
- Ikastetxe publikoen kalitatea hobetzeko neurririk egokiena, langileen lan baldintza duinak bermatzea, egonkortasuna ziurtatzea (ez bakarrik EPE-aren bidez), ratioak jaistea, formazioa indartzea eta ordezkapenak lehen egunetik betetzea da.
- Ordezkapenak lehen egunetik ez betetzeak, zerrenda irekialdien aurreikuspen falta nabarmenak eta deialdia egitetik gauzatzerraino pasatzen den denbora luzeak (2-3 hilabete) ondorio ikaragarriak dakartza guztiontzako
- PNV-ren ausardia eza ere salatzea da. Madrildik datorrenari aurre egin beharrean, handik datorren guztia irensten jarraitzen du.

**EPE-a ez da bide bakarra
Egonkortasuna denontzat!!!!**

***DEIALDIKO ZIRRIBORROAN OINARRITUTAKO INFORMAZIOA**

Maisu-maistren kidegoko plazak: 740

Lanpostu horietatik 687 txanda irekirako izango dira (A txandarako) eta 53, desgaitasuna dutenentzat gordetako txandarako (B txandarako).

Espezialitatea	A	B	Guztira
Haur Hezkuntza	211	16	227
Lehen Hezkuntza	234	18	252
Ingelesa	53	4	57
Gorputz Hezkuntza	34	3	37
Musika	33	3	36
Hezkuntza Berezia PT	98	7	105
Hezkuntza Berezia ALE	24	2	26
GUZTIRA	687	53	740

IZEN EMATEKO EPEA:

- EHAA-n argitara eman (otsailaren 20-28) eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 egun naturaleko epean eskabidea bete behar da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA (2.1.f)

-Egiaztatzea irakaspostuen 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren C-1 mailarekin parekatua), martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren 7. artikuluan, otsailaren 19ko 2/1993 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatu duenarekin lotuta aurreikusitakoaren arabera.

TITULAZIOAK (2.2.)

Maisu-maistren kidegoa (2.2.1)

Izangaiek ondorengo titulu hauetakoren bat izatea, edo hori lortzeko beharrezko diren ikasketa guztiak gaindituta izatea eta berau eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea:

- Maisu-maistraren titulua.
- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua.
- Lehen Hezkuntzako Maisu-maistraren titulua.

GAI-ZERRENDAK (2.eranskina)

ESPEZIALITATEA: LEHEN HEZKUNTZA:

Martxoaren 12ko ECI/592/2007 Aginduaren eranskina. Agindu horren bidez onartzen da Maisu-maistren kidegoaren Lehen Hezkuntzaren espezialitaterako sartzeko prozedurak eta espezialitate berriak eskuratzeko prozesuak arautu behar dituzten gai-zerrendak, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak araututakoak. (2007ko martxoaren 15eko BOE). 2012ko otsailaren 15ean EHAA argitaratutako aginduaren IV.eranskinan zerrendatzen diren 6 gai espezifikokoak gehitu behar dira.

ESPEZIALITATEA: MAISU MAISTRAK

1993ko irailaren 9ko Aginduaren I. eranskina. Agindu horren bidez onartzen dira Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoetara sartzeko prozedurak, espezialitate berriak eskuratzeko prozesuak eta zenbait espezialitaterako mugikortasuna arautu behar dituzten gai-zerrendak, ekainaren 4ko 850/93 Errege Dekretuak araututakoak.(1993ko irailaren 21eko BOE)

EAE-N EGUN INDARREAN CURRICULUMAK(3.eranskina)

Haur Hezkuntza:

- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko (EHAA, 2016-01-15)

Lehen Hezkuntza (espezialitate guztiak):

- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15)

OPOSIZIO-LEHIAKETAREN GARAPENA

Irakasle Funtzio Publikorako sarbide prozesua oposizio-lehiaketaren bitartez egiten da. Hau da, lehiaketa faseak (%33,33) + oposizio faseak (%66,66)

AURRETIKO PROBAK (6): Gaztelania probak (espainiar nazionalitatea ez dutenentzat) eta euskararen hizkuntz eskakizunen probak egongo dira.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA:

Programazio didaktikoa aurkezteko epe bat irekiko du administrazioak maiatzean zehar. Hauek internet bidez entregatu beharko dira.

Programazio didaktikoa entregatu ondoren, ordezkagiria inprimatu beharko du izangaiak, horixe izango baita dokumentua entregatu izana justifikatzeko agiria.

OPOSIZIO-ALDIKO PROBEN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

OPOSIZIO FASEA (2/3 ponderatzen da)		
276/2007. Errege dekretuaren 18.artikulua		
PROBAK KANPORATZAILEAK IZANGO DIRA		
<u>Lehendabiziko proba</u> 0 eta 10 puntu artean baloratuko da. Bi zatien artean gutxienez 5 atera behar da. Probaren A eta B zatiak saio berean egin ahal izango dira. (2017ko ekainaren 2.hamabostaldian izan daiteke).	A zatia: Kasu Praktikoa Proba praktikoa izango da, hautagaiak aukeratutako espezialitateari dagokion prestakuntza zientifikoa dutela eta trebetasun teknikoak menderatzen dituztela frogatzeko. Froga hau egiteko, hiru ordu, gehienez.	Zati bakoitzean gutxienez puntuazioaren % 25 lortu behar da: A zatian (0-6 puntu) 1,5 puntu gutxienez. B zatian (0-4 puntu) puntu 1 gutxienez.
	B zatia: Gaitegia Zozketaz ateratako gaien artean, gai bat garatu: a) 25 gai badaude 2 gairen artean aukeratu. b) 26tik 50 gai arte badaude 3 gairen artean aukeratu. Froga hau egiteko, 2 ordu	

	emango dira.	
<p align="center"><u>Bigarren proba</u> (Tribunalaren aurrean)</p> <p>0 eta 10 puntu artean baloratuko da. guztira ordu 1 eta 15 minutuko denbora-tartea emango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Programazioaren ahozko defentsa: 20 minutu gehienez. ✓ Unitate didaktikoaren azalpena: 40 minutu gehienez. <p>Epaimahai aurreko eztabaida: 15 minutu gehienez.</p>	<p>A zatia</p> <p>Programazio didaktiko baten aurkezpena eta defentsa.</p>	<p>A zatiak 4 puntu gehienez B zatiak 6 puntu gehienez.</p> <p>Bi zatien artean gutxienez 5 atera beharko da.</p>
	<p>B zatia</p> <p>Unitate didaktiko baten garapena eta ahozko defentsa. Norberak aurkeztutako programazioan edo gaitegian oinarritua. 3 unitate edo gairen artean 1 aukeratu behar da.</p>	
LEHIAKETA FASEA (1/3 ponderatzen da)		
I. eranskinean adierazitako merezimenduei puntuazioa esleitzean datza (gehienez 10 puntu)		Puntuak
I. LAN ESPERIENTZIA (gehienez 5 puntu)		
I.1.- Kidego berean eta publikoan: ikasturte bakoitzeko (Osatu gabeko urteak: 0,0833 puntu hileko)		1,000
I.2.- Beste kidegoetan eta publikoan: ikasturte bakoitzeko (Osatu gabeko urteak: 0,0416 puntu hileko)		0,500
I.3.- Kidego berean bestelako ikastetxeetan: ikasturte bakoitzeko (Osatu gabeko urteak: 0,0416 puntu hileko)		0,500
I.4.- Beste kidegoetan bestelako ikastetxeetan: ikasturte bakoitzeko (Osatu gabeko urteak: 0,0208 puntu hileko)		0,250
GEHIENEZ 5 URTE		

II. PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA (gehienez 5 puntu)	
<p>II.1. Norberaren espediente akademikoa. Batas besteko nota. Beharrezkoa da idatzita agertzea.</p> <p>0-10eko eskalan 0-4ko eskalan</p> <ul style="list-style-type: none"> • 5,5- 6,00 1,25-1,50 • 6,01 – 7,50 1,51-2,25 • 7,51 – 10 2,26-4 	<p>0,500</p> <p>1,000</p> <p>1,500</p>
<p>II.2. Graduondokoak, Doktoregoa eta Aparteko Sariak:</p> <p>II.2.1.-Ikasketa Aurreratuen Diploma (778/1998 E.D.) edo masterra (56/2005 E.D.)</p> <p>II.2.2.-Doktore titulua</p> <p>II.2.3.-Aparteko saria doktoretzan</p>	<p>1,000</p> <p>1,000</p> <p>0,500</p>
<p>II.3. Unibertsitate titulazio ofizialak:</p> <p>II.3.1. Lehenengo ziklokoak:</p> <p>II.3.2. Bigarren ziklokoak:</p>	<p>1,000</p> <p>1,000</p>
<p>II.4. Araudi Bereziko Irakaskuntzetako Lanbide Heziketa Espezifikoko titulazioak:</p> <p>a) Musika zein dantzako titulu profesionala</p> <p>b) HEOko gaitasun tituluak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - aurreratua (B2) - gaitasun (C1) - C2 <p>c) Arte eta Goi Mailako Diseinuko teknikari titulua</p> <p>d) Lanbide Heziketako Goi Mailako teknikari titulua</p> <p>e) Goi Mailako Kirol teknikari titulua</p>	<p>0,500</p> <p>0,500</p> <p>0,750</p> <p>1,000</p> <p>0,200</p> <p>0,200</p> <p>0,200</p>
III. BESTE MERITO BATZUK (gehienez 2 puntu)	
<p>III.1. Espezialitatearekin lotutako argitalpen didaktiko eta zientifikoak:</p> <p>a) Egilea</p> <p>b) Egilekidea edo egile taldekoa</p> <p>III.2. Etengabeko prestakuntza: Etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, administrazio publikoek edota unibertsitateek antolatutak edota onartuak:</p> <p>a) 3 kreditutik gora</p> <p>b) 10 kreditutik gora</p> <p>III.3. Soilik Gorputz Hezuntzako espezialitatean "Goi Mailako Kirolari" kalifikazioa izatea.</p> <p>III.4. Hizkuntza atzerritarrak:</p> <p>a) HEOkoak ez diren beste C2 mailako tituluak.</p>	<p>0,500</p> <p>0,250</p> <p>0,200</p> <p>0,500</p> <p>0,400</p> <p>1,000</p>

b) HEOKoak ez diren beste C1 mailako tituluak.	0,750
c) HEOKoak ez diren beste B2 mailako tituluak.	0,500

ORDEZKOEN ZERRENDETAN SARTZEA (XI KAPITULUA)

Zerrenden irekiera hautaketa-prozedurako oposizio-aldiko probak gainditu dutenentzat.

Hautaketa-prozeduraren probak gainditu dituzten baina hautatuak izan ez diren izangaiek irakasleen ordezkapenentarako izangaien zerrendan sartu ahal izango dira; probak gainditu duten espezialitatean izango da, betiere, lehenik espezialitateko zerrendan ez bazeuden. Zerrenda hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak arautzen du (EHAA, irailaren 11koa).

Ondorio horietarako, behin dagokion hautaketa-prozeduratik datozen praktikaldiko funtzionarioen izendapena argitaratu denean, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdi espezifikoko bat egingo du probak gainditu baina hautatuak izan ez diren izangaiek sartzeko aukera balia dezaten.



ARABA:	Eulogio Serdán 5 (behea)	01012-Gasteiz	945 14 11 04	araba@steilas.eus
BIZKAIA:	Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003-Bilbao	944 10 02 98	bizkaia@steilas.eus
GIPUZKOA:	Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015-Donostia	943 46 60 00	gipuzkoa@steilas.eus
NAFARROA:	Joaquin Beunza, 4-6 (behea)	31014-Iruñea	948 21 23 55	nafarroa@steilas.eus